



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 3a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kooperatibei buruzko uztailearen 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin. Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erresonantzia magnetikoak egiteko eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuatuko duten. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Corellako saihesbideari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (8. or.).

—Galdera, Patxi Larraintzar ikastetxe publikoan 2006-2007 ikasturterako eskainitako ikaspostu kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).

—Galdera, etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazterari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (9. or.).

- Galdera, Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andre-
ak egina (10. or.).
- Galdera, Ribaforada-Cortes NA-5200 errepidean saihebidia egiteari buruzkoa, foru parlamentari Juan
José Lizarbe Baztán jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bi foru agindu
zenbaki eta data berarekin argitaratu izanari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak
egina (11. or.).
- Galdera, Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga
Ramirez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egi-
teko teknologiarik, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (12. or.).
- Galdera, Gobernuo kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izaterari buruzkoa, foru par-
lamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (13. or.).
- Galdera, ASPACerekiko itunaren ez-betetzei buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andre-
ak egina (14. or.).
- Galdera, udalen herrilurretan NPBren ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruzkoa, foru par-
lamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Corellan saihebidia eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina
(15. or.).
- Galdera, Merkataritza eta Industria Ganberaren eta SODENAREN arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta
Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa, zertan den jakitekoa, foru parlamentari Elma
Sáiz Delgado andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partidaren kostuari buruzkoa, foru parlamen-
tari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (16. or.).
- Galdera, traumatologiako gaixoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruzkoa, foru parlamentari Patxi
Telletxea Ezkurra jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Etxalarren internetara konektatzeko banda zabala jartzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga
Ramirez Erro jaunak egina (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 2006ko apirilaren 18tik apirilaren 21era bitarteko egunetarako lanaldia (19. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren
aldaketa (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzekoa, gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzeko xedearekin.

INDUSTRIA ETA TEKNOLOGIA, MERKATARITZA ETA LAN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena –proposamenaren xedea da gizarte ekimeneko kooperatiben araubidea gehitzea– Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2005eko urriaren 3ko 97. Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

**Foru Lege proposamena,
Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko
12/1996 Foru Legea aldatzekoa,
gizarte ekimeneko kooperatiben
araubidea gehitzeko xedearekin**

ZIOEN AZALPENA

Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legearen 64. artikuluan ezartzen denez, lan elkartuko kooperatibak dira pertsona fisikoek nahiz juridikoek osatutakoak, eta haien lanaren bitartez ondasun edo zerbitzuen produkzioan jarduera ekonomikoa edo lanbidezkoa egiten dutenak, horrela enplegu finkoa eskainiz. Bestalde, Kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 7. artikuluan aurreikusten denez, lan elkartuko kooperatibek babes berezia izanen dute baldintza jakin batzuk betez gero; horien artean, oinarritzakoa da ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea hirugarrenentzat.

Gaur egun indarrean dagoen arauak lan elkartuko kooperatibei babes generikoa ematen die, hirugarrenentzat ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea xede badute; hala ere, ez ditu formula kooperatibistak garatzen, ezta bereizten ere, kooperatibaren xede diren zerbitzu edo jardueren arabera, eta, jakina, zerbitzu horien artean oso esanguratsuak dira irabazi asmorik gabe eskaintzen diren gizarte zerbitzuak.

Hori dela eta, gaur egungo autonomia erkidegoetako arau askotan gizarte ekimeneko kooperatibak jasotzen dira eta haien xedea zehazten; hain zuzen, haurren eta gazteen babesarekin zerikusia duten zerbitzuak ematea, zaharrei laguntza ematea, hezkuntza berezia, mendekotasuna duten pertsonen laguntza ematea eta abar.

Hala, bada, kooperatiba mota hori eratzea ahalbidetu den autonomia erkidegoetan, hainbat esparru bete dituzte, hala nola egoera ahulean dauden kolektiboentzako enplegurako eta laneratzeko prestakuntza, zaharrei eta haurrei laguntza emateko zerbitzuak, enplegu iturri berriak, laneko segurtasuna eta higiena, ingurumena eta aisialdia.

Autonomia erkidegoetako araubide guztien ezaugarri nagusia, aukeratzen den forma alde batera utzita, irabazi asmorik gabeko kooperatibak izatea da. Halaber, bereizgarria da, kooperatiben berezko izaeraren ondorioz, irabazi horiek banatzeko eta inbertitzeko modua; izan ere, hiru arlo hartzen baitira kontuan: alde batetik, ekonomikoa, irabaziak gizartearen garapenean eta jardueraren hobekuntzan inbertitzeko; bestetik, sozietateena, lan elkartuaren bidez pertsonak sustatzeko eta, jakina, ikuspuntu soziala, kohesioa eta gizarte-justizia sustatzeko.

Horrenbestez, figura horrek abantailak ditu elkarrearen aldean; izan ere, kooperatibak asetzen

du erakundeari enpresa-egitura taxutuagoa emateko beharrezana. Horretaz gain, horren azpian badira printzipio batzuk, eta printzipio horiek gauzatzeko bazkide guztiak parte hartzen dute helburu sozialak lortu ahal izateko eta kooperatibaren kudeaketa errazteko erabakiak hartzerakoan, kasuan kasuko organoen bidez.

Hori dela eta, kooperatiba mota horren araubideak, arestian azaldukoekin koherentea izateko, eskatzen du gizarte zerbitzuak ematen dituzten entitate laguntzaileen erregistroan inskribatzeko aukera ematea eta haien zerga-araubidea irabazi asmorik gabeko fundazioek, elkarteek eta gainerako entitateek dutenarekin parekatzea.

Hori guztia egin daiteke Kooperatibei buruzko Foru Legean aldaketa soil bat eginda, artikulua berri bat (74. bis artikulua) gehituta, alegia. Artikulu horretan kooperatiba mota horren kontzeptua eta ezaugarriak jasotzeaz gain, ezarriko da irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuen tratamendu fiskala aplika dakiekeela eta gizarte zerbitzuak ematen dituzten entitate laguntzaileen erregistroan inskribatu daitezkeela, Itunei buruzko Legea aplikatzearen; izan ere, Nafarroak eskumen osoa du bi arlo horietan.

Artikulu bakarra. Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legeari beste artikulua bat gehituko zaio:

74. bis artikulua. Gizarte ekimeneko kooperatibak.

1. Gizarte ekimeneko kooperatibatzat hartuko dira, edozein motatakoak izanda ere, ondoko xede sozialak dituzten kooperatibak: haurren eta gazteen babesarekin zerikusia duten laguntza arloko gizarte zerbitzuak ematea, zaharrei laguntza ematea, hezkuntza berezia, minusbalotasuna duten pertsonen laguntza ematea, gutxiengo etnikoek, errefuxiatuei, babestu politikoei, partekatu gabeko familia zamak dituzten pertsonen, preso ohien, alkoholikoei eta toxikomanoen laguntza ematea, gizarteratzea eta delinkuentziari aurrea hartzea edota edozein motatako gizarte bazterkeria jasaten duten pertsonen laneratzea helburu duten jarduerak ekonomikoak garatzea, eta oro har, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharrei erantzutea.

2. Ondorio horietarako, irabazi asmorik gabeko kooperatibatzat hartuko dira ondoko baldintzak euren estatutuetan espresuki jaso eta betetzen dituztenak:

a) Izandako irabaziak ezin izanen dira bazkideen artean banatu.

b) Bazkideek kapital sozialari eginiko ekarpenek, bai nahitaezkoak bai borondatezkoak, ezin izanen dute sorrarazi diruaren interes legala baino interes handiagorik; hori, halere, ez da oztopo izanen ekarpen horiek gaurkotzeko.

c) Zuzendaritza kontseiluko karguak ordainsarik jaso gabe beteko dira; hori, halere, ez da oztopo izanen kontseilarien lanak sortutako gastuengatik bidezkoak diren ordain ekonomikoak jasotzeko.

d) Bazkide langileen edo, kasua bada, lan-bazkideen eta besteren konturako langileen ordainsariak ezin izanen dira altuagoak izan sektore horretako besteren konturako langileei aplikagarri zaien hitzarmen kolektiboan jardueraren eta lortutako maila profesionalaren arabera ezarritako ordainsarien 100eko 150 baino.

2. bis idatz-zati berria. Entitate eta erakunde publikoek bazkide gisa parte hartzen ahalko dute estatutuei jarraikiz ezarriko den moduan.

3. Gizarte ekimeneko kooperatibei, zein motatako kooperatiba izan, hari aplikagarri zaion araudia aplikatuko zaie.

4. 2. idatz-zatian azalduko baldintzak betetzen dituzten kooperatibek, edozein motatakoak izanda ere, euren izenean agertuko dute "gizarte ekimena" aipamena, betiere Nafarroako Kooperatiben Erregistroak kalifikazio hori eman badio.

5. Artikulu honetan araututako kooperatibek, gizarte-zerbitzuen alorrean jarduteko asmoa baldin badute, une bakoitzean dagoen edo gizarte-zerbitzuen alorreko araudi sektorialak ezartzen duen erregistroan izena eman beharko dute.

6. (KENDUTA).

Azken xedapen berria. Gobernuak legegintza-ekimena igortzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorriko dio, 2006. urtea bukatu baino lehenago, kooperatiben zerga-araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat, gizarte ekimeneko kooperatiben zerga-araubidea ezarriko duena.

Azken xedapena. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erresonantzia magnetikoak egiteko eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da erresonantzia magnetikoak egiteko eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Jakin dugunez, Osasun Departamentuak erresonantzia magnetikoko zerbitzu mugikor bat lehiaketa publikora ateratzeko asmoa du, urtea amaitu baino lehen Nafarroako eskualde batzuetan zerbitzu hori eskaintze aldera.

Proba diagnostiko hori –horixe baita erresonantzia magnetikoa– egiteko zain dauden nafarren itxaron zerrenda gero eta luzeagoa da. 2005. urtean, 3.000 pertsona inguru zeuden proba hori egiteko zain Nafarroa osoan. Datu horiek kezgarriak dira, eta beharrezkoa da konponbideak proposatzea.

Horri dagokionez, ematen du logikoa eta funtsezkoa dela, lehenik eta behin, azterketa serio

eta sakon bat egitea, Nafarroako eskualde bakoitzean eskaera zenbatekoa den jakiteko, baita eskaeraren bilakaera eta etorkizunean zenbateraino irits daitekeen ezagutzeko ere. Ondoren, baliu daitezkeen bestelako aukerak aztertu beharko dira, zerbitzuaren baldintzei eta kostuari dagokionez.

Hori guztia egitea beharrezkoa da erresonantzia magnetikoko zerbitzu mugikor bat adjudikatze-ko lehiaketa publikoa deitu baino lehen, eta logikoa dela ematen du, azkenean sistema hori ezartzea erabakitzen bada, Osasun Departamentuak berme-, eraginkortasun- eta efizientzia-baldintza batzuk jartzea, bai zerbitzua emateari bai funts publikoak erabiltzeari dagokienez.

Horrela, bada, balizko kasu horretan, zerbitzu hori ematea adjudikazio baten bidez esleituz gero, komenigarria izanen litzateke hainbat baldintza betetzea, hala nola izaera iragankorra izatea, gehienez ere 5 urterako esleitzea, eta Osasun Departamentuak aukera izatea aparatu teknikoak alde aurretik finkatutako prezioaren truke erosi ahal izateko, administrazioak berak zerbitzu hori eman ahal izan dezan.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako eskualdeetan erresonantzia magnetikoaren teknika erradiologikoa erabiltzeko dagoen eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan, zerbitzu hori emateko lehiaketa egin aurretik.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko baldintzak bete ditzan, azterlanaren emaitzen ondorioz erresonantzia magnetiko mugikorraren zerbitzuan lehiaketa bidez esleitzea erabakitzen bada:

1. Zerbitzuaren adjudikazioak izaera iragankorra izanen du.

2.- Gehienez ere 5 urterako adjudikatuko da.

3.- Osasun Departamentuak aukera gordeko du adjudikazioaren epea amaitu ondoren aparatu teknikoak eskuratu ahal izateko, alde zurretik fin-

katutako prezioaren truke, aipatu zerbitzua berak eman ahal izateko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko azterlanak eta kudeaketak egin ditzan trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko Nafarroako lurraldean.

Trenaren historia aurrerapenarekin eta garapen sozioekonomikoarekin hertsiki lotuta dago. "Burdinazko bideek" denboran izandako bilakaerak, haien ezarpenak arlo guztietara ekarri zuen iraultzatik hasita, distira eta gainbehera garaiak ekartzen dizkigu gogora; gaur egun, ordea, etorkizuneranzko ildo berri batean kokatzea lortu dute. Dena den, bere bilakaeraren une guztietan, lehen, orain eta etorkizunean, herritarren eta ekonomiaren oportunitatearekin duen lotura begi bistakoa da. Eskuarki, garraiobide hau eta bere azpiegiturak garatzeko eginiko apustuek ondorio onak izan dituzte.

Gaur egun, trenak bi ekarpen garrantzitsu egin ditzake, ezagunak eta onuragarriak diren ezaugarriekin gain: abiadura handia eta eskualdeko hiriko trenak.

Nafarroan, historiako hainbat gertaera direla medio, trenaren ahalmenen garapena mugatua izan da; hala ere, garraiobide hori etorkizuneko garapenaren osagaitzat hartu beharko litzateke. Horrekin lotuta, eta, zalantzarik gabe, abiadura handiko trena foru erkidegoan ezartzeak ekarriko dituen abantailak –bai pertsonentzat bai salgaientzat– eragotzi gabe, beharrezkoa da gaur egun dauden azpiegiturak –Iruña-Castejón trazadura; Tuterako Cortes trazadura; Iruña-Irurtzun-Altsasu trazadura–gehiago erabiltzea, beste garraiobide batzuekin lotzea, industrialdeentzat eta ekoizpen zentro edo plataforma logistiko jakin batzuentzat irisgarriak egitea. Halaber, komenigarria dirudi gaur egungo sarea indartzea, bidaiariak lurraldean barna mugitzeko baliagarria izan dadin, baita inguruko autonomia erkidegoetako aldiriko trenaren sareekin lotzea ere.

Lehen RENFE zenak betetzen zituen jardueren banaketak –azpiegituren ustiapena, alde batekin, eta mugikortasuna, bestetik–, eta foru erkidegoaren barruko trenbideen arloko eskumena izateak ahalbidetzen du Nafarroako Gobernuak sustapen ekimenak gauzatu ahal izatea.

Mozioaren testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin ditzan, sei hilabeteko epean, egin beharreko azterlanak eta kudeaketak trenaren erabilerarik hoberena ahalbidetzeko Nafarroako lurraldean, eta azterlan eta kudeaketa horien ondorioen berri eman diezaión Nafarroako Parlamentuari.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuiatuko duten.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2006ko martxoaren 22an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuiatuko duten."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat taxutu dezan, zeinaren bitartez Nafarroako administrazio publikoek genero indarkeria arbuiatuko duten

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa protokolo bat diseina dezan, haren bidez Nafarroako administrazio publiko guztiek arbuiorik erabatekoena erakuts dezaten generoko indarkeriaren biktima diren emakumeen heriotzengatik, doluminak bidal ditzaten gertaera tamalgarriak gertatu diren herri eta hirietara eta kontzentrazioarako deia egin dezaten Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko emakumeen hilketengatik arbuioa adierazteko, bai eta gizartearen kontzientziak edo alarmak hori gomendatzen dutenean ere. Ekintza horiek guztiak Nafarroako Emakumearen Institutuan zentralizatuta egonen lirakeke, bera baita berdintasunaren arloko Nafarroako organo gorena.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2006ko martxoaren 22an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiten dituen estatistika guztietan sexuaren aldagaia sar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Behar diren neurriak har ditzan emakumeen eta gizonen arteko aldea kuantitatiboki eta kualitatiboki erabat ezagutzeko, bizitzaren arlo guztietan.

2. Nafarroako Gobernuak egin edo eskatzen dituen estatistika guztietan, sexuaren arabera bereizketa egin dadin.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Corellako saihebideari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Corellako saihebideari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano Legebiltzarreko Erregela-menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan Departamentuak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Duela gutxi egunkarrietan agertu da Corellako saihebiderea egiteko obren lizitazioa eginen dela. Ezker Batua parlamentu-taldeak gai horri buruzko zuzenketa bat aurkeztu zuen 2006ko aurrekontuei buruzko eztabaidan, eta gobernuaren osatzen duten taldeek ez zuten kontuan hartu. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

Noiz eginen da Corellako saihebiderea egiteko obren lizitazioa?

Noiz du asmoa Herrilan Departamentuak Corellako saihebiderearen obrak hasteko?

Nola finantzatuko dira obra horiek?

Ba al da halako obra bat egiteko behar den denborari buruzko kalkulurik?

Zergatik ez zaio jakinarazi Corellako Udalari, alkatearen bidez, Herrilan Departamentuak obra hori egiteko erabakia hartu duela?

Iruñean, 2006ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Patxi Larraintzar ikastetxe publikoan 2006-2007 ikasturterako eskaintako ikaspostu kopuruari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Patxi Larraintzar ikastetxe publikoan 2006-2007 ikasturterako eskaintako ikaspostu kopuruari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galde-

gileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Aralar taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, Patxi Larraintzar ikastetxe publikoaren 2006-2007 ikasturterako ikaspostu eskaintza dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion.

Zergatik egin da 75 ikaspostuen eskaintza Patxi Larraintzar ikastetxean 2006-2007 ikasturterako jakinki 398 ikasle direla izena emateko gai diren hurrak Errotxapeako auzoan D eremuan?

Zergatik eskaintzen dira 75 ikaspostu bakarrik, aurreko urteetan 100 ikaspostu aise bete direnean?

Iruñean, 2006ko martxoaren 23a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazterari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazterari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Duela gutxi argitaratu da hedabideetan Osasun Departamentuak etxeko ospitalizazio zerbitzua abiarazteko asmoa duela Nafarroan.

Badirudi ekimen hori plangintza seriorik gabeko inprobisazioaren ondorioa dela; izan ere, Osasun Departamentuko aurrekontuaren oroitidazkian ez da agertzen ekimen horri buruzko inolako aipa-

menik, eta iragarpen publikoan ez da zerbitzu horren funtzionamenduari buruzko daturik ematen, 5 hilabete barru abiarazi nahi dela esan arren.

Etxeko ospitalizazioa interesgarria da, baina beharrezkoa da plangintza serio bat egitea eta galdera askori erantzutea, hala nola zer egin nahi den, nola egin nahi den eta nork abiarazi behar duen.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Egin al da azterlanik jakiteko zergatik den beharrezkoa etxeko ospitalizazio zerbitzua eta zerbitzu horren onuradunen beharrezko aztertzeko? Hala baldin bada, horren kopia jaso nahi dut.

– Zer egin nahi da, nola, eta nork abiarazi behar du zerbitzu hori?

– Egin al da zerbitzu horren kostuari buruzko azterketa ekonomikorik? Hala baldin bada, horren kopia jaso nahi dut.

– Aurrekontuko zer kontusailetik ordainduko da zerbitzu hori?

Iruñean, 2006ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, Senda Viva naturaren parkeko plantillari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zein izan da enplegu sorkuntzaren bilakaera eta zein dira 2006 eta 2007rako aurreikuspenak Senda Viva naturaren parkean, behin-behineko langileei (aldi baterakoak) eta langile finkoei (behin betikoak) dagokienez?

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Ribaforada-Cortes NA-5200 errepidean saihsbidea egiteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Ribaforada-Cortes NA-5200 errepidean saihsbidea egiteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ribaforadatik Cortesera doan NA-5200 errepidean, Buñuelen parean, saihsbidea egiteko, edo herri horretako udalari laguntzarik emateko saihsbidea egin dezan? Azaldu saihsbidearen ezaugarriak, aurrekontua, trazadura eta udalaren eta Nafarroako Gobernuaren lankidetzeta maila.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bi foru agindu zenbaki eta data berarekin argitaratu izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren bi foru agindu zenbaki eta data berarekin argitaratu izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

2006ko martxoaren 8ko 29. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Agindua argitaratu zen; haren bidez,

praktiketako zazpi beka emateko deialdia onetsi zen: bat Nafarroako Gobernuak Madrilen duen ordezkartzan aritzeko eta sei Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzuan aritzeko.

2006ko martxoaren 17ko 33. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Agindua argitaratu zen; haren bidez, unibertsitateko tituludunentzako hiru prestakuntza beka emateko deialdia onetsi zen, Turismo Zuzendaritza Nagusian (Turismoaren Sektorea Sustatu eta Antolatzeako Zerbitzua) aritzeko.

Harritzekoa da hain egun gutxiren aldearekin zenbaki eta data bera baina eduki desberdina duten bi foru agindu argitaratzea.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik argitaratu dira eduki desberdina duten bi foru agindu zenbaki eta data berarekin?

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Senda Viva naturaren parkean egitekoak diren inbertsioei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaioten:

Egunkarien bidez jakin dugu Senda Viva naturaren parkean hainbat inbertsio egin behar dituztela, besteak beste 840 metro luzeko errusiar mendi bat, 50 metroko tirolina bat eta ur-labirinto bat.

Parke horretako bisitari kopuruei buruzko aurreikuspenak sistematikoki ez badira betetzen ere, parkearentzat bideratutako baliabideen kopurua handia da. Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehen: Zenbat egiten dute inbertsioek, guztira? Kontusailen eta kontzeptuen arabera azaldua nahi dugu.

Bigarrena: Kopuru horretatik, zenbat jarriko du zuzenean Nafarroako Gobernuak? Zer kontusailen kargura?

Hirugarrena: Informazio grafiko bat nahi dugu, azalduz bisitari kopuruei buruzko aurreikuspenen –eta zehaztutako helburuen– eta bisitarien kopuru errealean arteko korrespondentziaren bilakaera.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egiteko teknologiarik.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, jakiteko ea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez duen hezurretako dentsitometria egiteko teknologiarik. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Hezur-dentsitometria teknika egokia da hezur-masa neurtzeko. Osteoporosiaren ondorioz, hezur-masa eraldatu egiten da.

Menopausiaren aldian, emakumeak osteoporosia izateko arriskua izaten du; hori dela eta, prebentziorako tratamenduak nabarmentzeaz gain, espezialistek aipatutako teknika, hezur-dentsitometria alegia, egitea eskatzen dute batzuetan.

Kontuan hartuta ikuskapen mota horren eskaera gero eta handiagoa dela eta medikuek gero eta gehiago eskatzen dutela, ulertezina da gaur egun

osasun sistema publikoak teknika hori ez eskaintzea eta gaixoak Klinika Unibertsitariora bideratu behar izatea.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zergatik Osasunbideak ez dauka hezur-dentsitometria egiteko beharrezkoa den teknologiarik?

– Beharrezkoa al da ikuskapen hori egitea? Osasunbideak ba al du teknika hori eskuratzeko asmorik? Erantzun arrazoitua eman bedi.

– Zenbat hezur-dentsitometria egin dira Klinika Unibertsitarioan 2000, 2001, 2002, 2003, 2004 eta 2005 urteetan Osasunbideatik bideratuta?

– Zein da teknika horren kostua? Zenbat ordaintzen du Osasunbideak ikuskapen horiek egiteagatik? Lehen aipatutako urteetan, zein izan da proba hori egitearen truke ordaindutako kostua, guztira?

– Zenbateko kostua dute hezur-dentsitometriak egin ahal izateko beharrezkoak diren aparatuek?

– Osasunbideak beste osasun zentro batzuetara bideratzen al ditu gaixoak proba hori egin diezaieten? Hala baldin bada, zehaztu zein zentrotara bideratzen diren.

– Ba al da Nafarroan teknika hori erabiltzen duen beste osasun zentrorik?

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Gobernu kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izaterari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Gobernu kideak bi administrazio kontseilu baino gehiagoko kide izaterari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 5. artikuluan arautzen da kargu publikoek izan ditzaketan sari ekonomikoen bateragarritasuna; hala, 5.1 idatz-zatian hauxe ezartzen da: "Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu: a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta lekualdatzeen gastuen kalteordaina, indarra duen araudiari jarraituz. b) Bertaratzeagatik, araudia aplikagarrian ezarrita dauden zenbatekoak; sozietate publikoetako admi-

nistrazio kontseiluetan ez da saririk jasoko bi baino kontseilu gehiagotan parte hartzeagatik. c) Zein administrazio publikotatik datorren, haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean." Halaber, artikuluko bereko 2. idatz-zatian hauxe xedatzen da: "Edozein kontzepturen bidez jaso behar ez diren zenbatekoak sortuz gero, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean".

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Ba al da bi sozietate publikoetako baino gehiagoko administrazio kontseiluetako kide den Nafarroako Gobernu kiderik edo Foru Komunitateko administrazioko goi kargurik? Hala bada, kasuan kasuko ordainsariak sartzen al dira aurreko xedapenean aipatzen den kontuan?

Kontu horretan ba al da bestelako ordainsaririk, beste arrazoi batzuk direla medio? Hala bada, azaldu zer kasutan eta zer karguei dagozkien.

Zer dirusarrera egin dira kontu horretan, hala bada, 2003, 2004 eta 2005. urteetan? Kasua bada, dirusarrerak egin dituzten sozietateen zerrenda nahi dut, eta zer kontzepturengatik egin dituzten dirusarrera horiek.

Iruñean, 2006ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

Galdera, ASPACEREKIKO ITUNAREN EZ-BETETZEEI BURUZKOA.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, ASPACEREKIKO ITUNAREN EZ-BETETZEEI BURUZKOA. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko gal-

derak egin ditu Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak erantzun diezazkion:

Enpresa batzordeak eta erabiltzaile baten senide batek Ramón y Cajal zentroaren aurka aurkeztutako erreklamazioei buruzko txostenak aztertuta (213/2005 eta 233/2005-3 espediente zenbakiak), ikus daiteke badirela datuak egiaztatzen dutenak Aspacerekin sinatutako itunaren baldintzak ez direla betetzen ari. Halaber, 2003., 2004. eta 2005. urteetarako sinatutako itun horrek eskatzen duen langileen ratioaren azterketa ez da egin, eta 209/1991 Foru Dekretua ez da betetzen ari. Hori dela eta, hauxe jakin dut:

Zer egin behar du Gizarte Ongizate Departamentuak arau-hauste horiei dagokienez?

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, udalen herrilurretan NP Bren ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, udalen herrilurretan NP Bren ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2005. urteko ekainean, Frantziako Le Manseko lehen auzialdiko epaitegi batek, Europar Batasu-

neko zuzenbidea aplikatuta, epai batean ebatzi zuen Nekazaritza Politika Bateratuko ordainketa bakarreko eskubideak lurzuari atxikiak direla eta, horrenbestez, lurzuaren errentamendu-kontratuaren osagarriak direla.

Hala, lurzuaren errentamendu-kontratu bat amaitzean, ordainketa bakarreko eskubideak lurzuaren jabeari transferitzen zaizkio.

Epai horren kasuan, ez Frantziako Nekazaritza Ministerioak ez errentariak ez dute errekurtsorik aurkeztu; beraz, epaia irmoa da.

Ordainketa bakarreko eskubideei buruzko doktrina horrek ondorio garrantzitsuak izan ditzake Nafarroan, Nafarroako udalen jabegoko herrilurrei aplikatuz gero. Hala, herrilurren ordainketa bakarreko eskubideen titularrak udalak izanen lirateke, eta ez lur horien errentariak.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer jarrera du Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Politika Bateratuko ordainketa bakarreko eskubideen titulartasunari buruz udalerrietako

herrilurrei dagokienez? Eskubide horiek udalei edo errentariei dagozkie?

– Bat al dator Nafarroako Gobernuaren jarrera Frantziako epaitegi horren emandako epaiarekin? Hala bada, zer egingen du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako herrilurren ordainketa bakarreko esku-bideen titulartasun publikoa defendatzeko?

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Corellan saihebidia eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, Corellan saihebidia eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2005eko urtarrilaren 3an, Corellako Udalak errepideei buruzko bigarren planean agertzen den saihebidearen trazadurari buruzko informazioa eskatu zuen.

2006ko martxoaren 16an, egunkarietan azaldu zen Nafarroako Gobernuak saihebidia bat eraiki behar duela, Corellako trafikoa murrizteko asmoz.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Jakinarazi al zaio Corellako Udalarari prentsan agertutako informazioa? Zehaztu informazio hori noiz atera zen departamentutik.

2.- Corellako alkate Ramón Jiménez Gonzálezek saihebideari buruzko gutun bat igorri zion 2004ko abenduaren 16an Álvaro Miranda kontseilari jaunari. Zer erantzun eman zaio alkateari? Zehaztu erantzuna noiz atera zen departamentutik.

3.- 2005eko urtarrilaren 3an Corellako Udaleko Osoko Bilkurak saihebidia eraiki dadin eskatze-ko erabakia hartu zuen. Zer erantzun eman zaio departamentutik erabaki horren jakinarazpenari? Adierazi erantzunaren irteera-data.

4.- Aipatu saihebidearen trazadurari buruz, departamentuan ba al dago azterlanik, planorik edo bestelakorik? Igorri al zaio informazio hori udalari? Azaldu irteera-data.

5.- Zehaztu saihebidearen trazadura, aurrekontua, eta lanak noiz hasi eta amaituko diren.

6.- Lan horiek errepideei buruzko planean Ebroko ardatzerako aurreikusten direnak baino lehenago hasiko al dira?

7.- Aipatu informazioak udalari ez bazaizkio igorri, azaldu zergatik jakinarazi zaizkien hedabideei udalari baino lehenago.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Merkataritza eta Industria Ganberaren eta SODENaren arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa, zertan den jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, Merkataritza eta Industria Ganberaren eta SODENaren arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa, zertan den jakitekoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du,

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

a) Zertan da Merkataritza eta Industria Ganberaren eta SODENaren arteko lankidetzaren ituna, New Yorken eta Chicagon nekazaritzako elikagaiak sustatzeari buruzkoa?

b) Zein dira itun horrek bi aldeei ezartzen dizkiren baldintzak?

c) Zein da eginiko sustapenak AEBetan izan den eraginari buruz alde aurretik eginiko azterketaren emaitza? Zer emaitza espero dira?

d) Horrelako zer beste ekintza egiteko asmoa dago Europar Batasuneko herrialdeetan edo beste herrialde batzuetan?

e) Horrelako zer beste ekintza egiteko asmoa dago Espainian?

Iruñean, 2006ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partidaren kostuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partidaren kostuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Toki Administrazioako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kutxa Fundazioak Nafarroako futbol selekzioak nazioarteko futbol partida bat jokatzeko lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuten 2004ko azaroan. Hitzarmen horren laugarren idatz-zatiaren ezartzen duenez, kostuen kalkularen arabera, aipatu partidak 330.000 euroko kostua izanen luke. Horietatik "180.000 euro, antolamendua eta kontratazioa, selekzio aurkariaren bidaiak eta ostatua bezalako kontzeptuengatik dira; 60.000 euro, Nafarroako haur eta gazteen artean banatzeko kamisetak eta kirol ekipamenduak egiteko; eta, azkenik, 90.000 euro ekitaldia sutatzeko eta publizitatea egiteko".

Informazio hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Toki Administrazioiko Departamentuak ezagutzera eman eta 2006ko urtarrilaren 24ko 3. zenbakidun Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen fakturen azalpenak –hain zuzen, 263.157 euro egiten zuen–, Marokoko eta Nafarroako selekzioen arteko nazioarteko futbol partidaren kostu osoa –hau da, antolamendua eta ekitaldia– hartzen du? Edo kostu osoa itunean ezarritako kopurua, hau da, 330.000 euro, izan zen?

2. Itunaren bigarren klausulan zehazten da Nafarroako Gobernuak 165.000 euro jarriko dituela gehienez ere. Seigarren klausulan ezartzen denez, berriz, “Nafarroako Gobernuak jarri beharreko dirua ordainduko da Caja Navarra Fundazioak kopuru horretako gastuen ziurtagiriak aurkeztu ondoren, betiere 2004ko abenduaren 31 baino lehen”. Horrekin lotuta, ba al da Nafarroako Gobernuak ziurtagiririk ez duen bestelako gasturik?

3. Zenbat diru jarri du Caja Navarra Fundazioak ekitaldi hori egiteko? Zein kontzepturengatik?

4. Zenbateko dirusarrerak lortu ditu Caja Navarra Fundazioak ekitaldi horren ondorioz? Zein kontzepturengatik?

5. Toki Administrazioiko kontseilariak foru parlamentari honi leporatzen dizkion seriotasun falta eta akusazio faltsuei dagokienez, berriro eskatzen dut argitzea ekitaldi horren karietara haurrentzat prestatu ziren opari sortetan metxeroak sartu ziren ala ez. Horrekin lotuta, argitu nahi dut nire galderaren zioa honekin batera doan idazki ofiziala izan zela, hain zuzen Toki Administrazioiko kontseilariaren kabinete buruak Diario de Noticias egunkarira igorri zuena. Bertan aipatzen da espresuki haurrentzako 523 opari sortak “kamisetaz, galtzez eta metxeroz” osatuak zirela; horrenbestez, seriotasun falta eta akusazio faltsuak aipatu departamentuari leporatu ahal zaizkio, eta ez foru parlamentari honi; izan ere, nire asmo bakarra da zehatz-mehatz jakitea ekitaldi horren ondorioz izandako gastuak eta dirusarrerak, eta entitate bakoitzak ordaindutako eta jasotako zenbatekoak. Hori dela eta, espero dut nire galderari erantzutea, gai horri buruzko hirugarrena baita.

Iruñean, 2006ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, traumatologiako gaixoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, traumatologiako gaixoen igeltsua kentzeko itxaronzerrendei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Aralar taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, traumatologiako gaixoen igeltsua kentzea dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun daki-on.

¿Egia al da traumaren bat izan eta igeltsua paratu zaien gaixoei ere itxaron zerrendak dituztela?

Erantzuna baiezkota izatekotan, zein da gaixoen batez besteko itxaronaldia?

Iruñean, 2006ko martxoaren 23a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Etxalarren internetera konektatzeko banda zabala jartzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Etxalarren internetera konektatzeko banda zabala jartzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Etxalarren ez dago azpiegiturarik banda zabaleko telekomunikazioen teknologia berriak erabili ahal izateko (interneteko abiadura handia, alegia). Udalerri hau, bere garaian adierazitakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean banda zabaleko telekomunikazioetako azpiegiturak garatzeko plan zuzendariaren barruan sustatutako programaren barruan dago, eta horrek ahalbidetuko dio zerbitzu horiek baliatu ahal izatea.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Aurreikuspenen arabera, Etxalarrek noiz izango ditu plan horren barruan jasotako interneteko banda zabaleko zerbitzuak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2006ko apirilaren 18tik apirilaren 21era bitarteko egunetarako lanaldia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Langileen Batzordeak 2006ko martxoaren 24an bidalitako idazki batean eskatu zuen 2006ko apirilaren 18tik apirilaren 21era bitarteko lan-aste-an goizeko lanaldia ezartzea. Nafarroako Parla-mentuak eta Langileen Batzordeak sinaturiko hitzarmenaren arabera, aipatu hitzarmenaren 3.2.a) atalarekin bat, hona ERABAKIA:

1. 2006ko apirilaren 18, 19, 20 eta 21ean goi-zeko lanaldia ezartzea. Halere, hori ez da eragoz-pen izanen goizeko ordutegitik kanpo Legebiltza-rreko lana baldin badago etorri beharreko langileak etor daitezzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-kari Ofizialean argitaratzea eta Langileen Batzor-deari, legelari nagusiari eta Legebiltzarreko zerbi-tziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko eta Langileen Batzarreko ordezkariak 2004tik 2007ra bitarteko akordioa sinatu zuten. Haren 5. artikuluko a) letran hauxe esaten da: "Barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren aldaketa sustatuko da, horrela, kasuan kasuko hauta probak gainditu ondoren, transkriptoreek eta administrariak bi lanpostu horiek bete ahal izan ditzaten." Aurreko guztia eta legelari nagusiak eginko txostena ikusirik eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko lehen xedapen gehigarriaren arabera Langileen Batzordeari eman beharreko entzunaldia eman ondoren, ERABAKIDA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren aldaketa onestea. Testua erabaki honekin batera doa.

2. Erabaki hau eta onetsitako aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren aldaketa

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat erantsi zaio Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen

barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduari; testu hau izanen du:

"Xedapen gehigarri bakarra. 1. 3. artikuluan ezarritakoa ukatu gabe, transkriptoreek eta administrariak bi lanpostu horiek bete ahal izan izanen dituzte, betiere lanpostu horiek betetzeko beharrezkoa den administrazio-gaikuntza badute.

2. Gaikuntza lortzeko probak praktikoak izanen dira eta bi urtez behin eginen dira, betiere interesdunen batek hala eskatzen badu. Gaikuntza zortzi urterako izanen da; epe horretan gaikuntza ez bada erabiltzen, bertan behera geratuko da.

3. Mugikortasun prozesuko lanpostu hutsak zein kidegoetakoak diren, kidego horretako funtzionarioek betiere lehentasun eskubidea izanen dute gaikuntza lortu duten funtzionarioen artean, 5. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraikiz.

4. Sustapen sistema horren bidez lanpostu berria lortzen duten funtzionarioei Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 19.1.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie."

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.